

Erf.: Inbentarioko 2013 aldaketak 150122 OB
Tx. zk.: 15/04

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Udal inbentarioaren aldaketak onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: Legeak agintzen dauanari jarraiki, Udalaren eta Patronatu bien Inbentarioetako aldaketen zerrendak prestatu dira, Osoko Bilkureak onartzeko.

b) Oinarriak

Bakarra: Aplikagarria dan legedia kontutan hartuta, Osoko Bilkureak, gitxienez urtean behin, Ondasunen Inbentarioan egondako aldaketak egiaztatu behar dauz, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 E.D.ko 33.1 artikulua jasotzen dauanaren arabera.

Hori dala eta, Osoko Bilkurearen eskumena danez, 1012. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako Udalaren eta Patronatuetako Ondasunen Inbentarioetan egondako aldaketak berrestea proposatzen da, aldaketa horrek era egokian jasota geratu daitezkan.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko urtarrilaren 20an.

Karmele Muñoa Arrigain
Jarduneko Idazkaria